Tal es el interés que se ha generado en este tema, que el año pasado se creó la Red de Mosaicismo Somático Cerebral, auspiciado por el NIH en Estados Unidos, y que tiene como objetivos conocer el grado de mosaicismo en un cerebro normal, y en qué

medida el 'mosaicismo aberrante' puede estar relacionado con desórdenes neuronales complejos, como el autismo o la esquizofrenia.

Esta es una representación habitual de las personas: una pintura de Francisco de Goya. Ahora bien, pienso que, si tenemos en cuenta los resultados recientes en Biología que acabo de comentar en mi intervención, quizá no sea la manera más adecuada de presentar, o de representar el cuerpo humano. Quizá esta representación de Klimt podría acercarse más... o estas otras representaciones de otros autores desconocidos.


Eskerrik asko.





Nekane Balluerka,  
Euskal Herriko Unibertsitateko  
errektore andrearen hitzaldia

Discurso de Nekane Balluerka  
Rectora de la Universidad  
del País Vasco







Lehendakari jauna,  
Eusko Legebiltzarreko presidente andrea,  
Bizkaiko ahaldun nagusi jauna,  
sailburu andrea, errektoreak,  
herri agintariok,  
Euskal Herriko beste unibertsitateko  
agintariok,  
klaustrokideok,  
jaun andreok. Egun on guztioi.

Bere gizartearen zerbitzuan egon nahi duen unibertsitate batean, bikainak izan behar dira unibertsitate horretan egiten diren irakaskuntza eta ikerkuntza. Bada, horixe izan da azken bi urte hauetan ikusmiran izan duguna eta egun ere duguna.

Aurki bi urte beteko dira gure agintaldia hasi zenetik eta gure unibertsitateak aurrera egiteko pausoak ematen jarraitu du. Zuen konfiantza behar genuen aurrera egiteko, eta aurrera egin dugu. Aurrerapen hori denon lanari eta denon ahaleginari esker izan da. Beraz, ezer baino lehen eskerrik asko Euskal Herriko Unibertsitateko kide guztioi.

Era berean, zorionak UPV/EHUri, aurten Bilboko Unibertsitate Autonomoaren, gure aitzindari nagusietarikoa denaren, 50. urteurrena ospatzen den honetan.

Eta eskerrak eman nahi dizkiot ere Ana Zubiaga irakasleari eskaini berri dugun hitzaldi bikainagatik. Izan ere, bere ikerketa lerroa, bariazio genomikoak gizakion osasunean duen eraginaren azterketa, gizarte osoarentzat onuragarria bezain garrantzitsua baita.

Behin baino gehiagotan esan dut ikeretzen ez duen unibertsitate bat ez dela unibertsitatea, funtsezko zerbait falta zaiola. Ikerketa unibertsitate zereginaren oinarritzko jarduera bat da, eta horren proba argia da gainerako unibertsitate jardueri zuzen-zuzenean eragiten diela.

Beraz, ikerketa ardatz nagusietako bat da onartu berri dugun eta 2021. urtera arte indarrean egongo den Plan Estrategikoan. Plan horren bidez, politika berriak diseinatu nahi ditugu, eta martxan diren beste batzuk indartu; politika horien helburua ikerketa bultzatzea izango da, bada-kigulako ikerketa bultzatzean beste unibertsitate jarduera batzuk ere indartzen ditugula; gure planean, zehazki, hauek aipatzen dira: prestakuntza, gizartearekiko harremana, baliabideen lorpena, eta pertsonen garapen profesionala.

Guk defendatzen dugun unibertsitate iker-tzailearen eredu hori, ordea, printzipioen adierazpen hutsal bat izango litzateke, ha-rekin batera ekintza zehatzak egingo ez ba-lira. Horregatik, neurri espezifikoak jarri di-tugu martxan, eta etorkizunean are gehiago jarriko ditugu. Neurri horien bidez, helburu hauek lortu nahi ditugu: gazte ikertzaileei lagundu; talentua sortu, zaindu eta eraka-rri; ikertalde finkatuak bultzatu, baita sortu berriak ere; I+G+B eragileekiko harremanak indartzeko azpiegitura berriak sortu; iker-ketako laguntza eta kudeaketa zerbitzuak hobetu; nazioarteko partzuergoak eta sa-reak sortu, bereziki prestigioa duten taldeekin; eta, azkenik, nazioarteko eta tutoreki-detzako tesiak sustatu.



Baina, nioenez, ikerketa indartzeak ez dakar beste unibertsitate jarduera batzuk ahultzea. Alderantziz, bultzatu egiten ditu. Segida hori azaltzen saiatuko naiz, labur bada ere.

Horrela, lehenik eta behin, ikertzen duen unibertsitate batek prestakuntza hobea eskaintzen du, ezaguna denaren transmisioari jakintza berri baten ekarpen kualifikatua gehitzen diolako. Zentzu horretan, unibertsitate ikertzaile bat unibertsitate hobea da irakaskuntzarako; haren hezkuntza eskaintzaren kalitatea indartzen du; eta ikasleei eredu bat ematen die, non ikastea eta ikertzea ez diren konpartimentu itxiak, lotura estua duten jarduerak baizik.

Bigarrenez, unibertsitate ikertzaile batek lotura sendoagoak ezartzen ditu gizartearekin, ezagutza transferitzen dielako gizarte eragileei eta haiekin harreman estuak dituelako. Botere publikoek, enpresek eta elkarteek ezagutza berri horren onura jasotzen dute. Beraz, ikerketa ez da

bakarririk irakaskuntza hobetzeko tresna bat, haren bidez hobetzen delako ere unibertsitatearen eta bestelako gizarte eragile publiko nahiz pribatuen arteko harremana. Eta gauza bera esan dezakegu dibulgazio zientifikoaz.

Baina ikerketa bada ere, hirugarrenez, unibertsitate erakundearen finantzaketa hobetzen lagun dezakeen tresna bat. Arlo horretan egiteko asko dago oraindik, baina dagoeneko emaitzak eskuratu ditugu. Horrela, joan den urtean, UPV/EHUK ia 10 milioi euro lortu zituen ezagutza transferitzeko kontratuetan. Eta kopuru horri 15 milioi euro gehitu behar zaizkio, gure ikertzaileek Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko deialdi lehiakorretan lortu zituztenak, bai estatuan, bai nazioartean. Ikerketak, lehen nioen moduan, unibertsitatearen eta gizartearen arteko lotura indartzen du, eta, aldi berean, orain aipatu bezala, baliabide ekonomikoaren iturri esanguratsu bat da. Arlo horretan, ikerketak unibertsitatearen beste zeregin batzuk indartu egiten ditu.

Eta, amaitzeko, laugarrenez, ikerketaren aldeko erronkak eragina du ere unibertsitateko kide guztien eta bertan lan egiten duten pertsona guztien garapenean. Eta era askotan egiten du.

Bi adibide baino ez ditut aipatuko. Gure ikasgeletan dugun talentua Euskadin geratu nahi eta ahal izateko modu bakarra zera da: Euskal Herriko Unibertsitateak bere posizioari eustea lehen mailako ikerketa eragile gisa.

Bestalde, dimentsio pertsonal horren barruan, ikerketak eragina du ere gure unibertsitate ereduaren funtsezko beste elementu batean: balioen transmisioa. Unibertsitate bikaintasunaren kontzeptuak bikaintasun etikoa ere biltzen du: gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, gutxiengoekiko eta kolektibo kalteuenekiko errespetua, balio demokratikoen sustapena, Nazio Batuek adostutako Garapen Iraunkorreko Helburuen defentsa, humanismo filosofikoa, portaera etikoa izaki bizidunekin egindako ikerketan, edo berdintasun printzipioa, pertsona guztiek unibertsitate sartzeko aukera izan dezaten. Arlo horretan ere beharrezkoa da ikerketa, kontzientzia kritikoa eta autokritikoa bultzatzen dituelako, metodologia zientifikoa zabaltzen duelako eta indar fisikoan edo diskurtso irrazionalean oinarritutako argudioez fidatzen ez delako. Ikerketa, beraz, unibertsitatearen aliatua da; unibertsitate bat, balio etikoetan oinarritzen dena, eraturako errealitatearekin kritikoa dena, aldaketaren alde dagoena, eta berritzailea eta ekintzailea dena. Hortaz, ikerketa erabada, etikoki, gizarte eta ekonomia eraldaketarako tresna bat.

Hain lehiakorra den testuinguru global honetan, unibertsitate politikaz ardurtzen garenok argi eduki behar dugu ikerketa bere helburuez (gizartearen aurrerabiderako baliotsuak izanik ere) harago

doala eta unibertsitate jardueraren alderdi guztiak bultzatzen dituela. Hori dela eta, gure erantzukizuna da garatzen ditugun politiken bidez, ikerketak, ezagutza sortzeaz gainera, irakaskuntza hobe bat lortzen lagun dezan, baita gizarte hobe bat, finantzaketa hobe bat, eta printzipio etikoak eta sozialak barneratzeko modu hobe bat ere, behar-beharrezkoak baitira bizikidetzaren oparagoa eta baketsuagoa izan dadin. Eta hori guztia Euskal Herriko Unibertsitatea osatzen dugun gizon eta emakumeen motibazio profesionala eta hazkunde pertsonala bultzatuko duen lidergo baten eskutik.

He querido comenzar con esta reflexión, referida a la actividad investigadora, porque nos encontramos en un momento crucial como institución. El cumplimiento de la mitad de este mandato rectoral coincide con la elaboración de dos documentos clave para el futuro de la universidad: el Plan Estratégico 2018-2021 de la UPV/EHU y el Plan Universitario 2019-2022.

Nuestro Plan Estratégico establece las líneas principales de trabajo en la UPV/EHU para los próximos cuatro años. Y el Plan Universitario, instrumento aprobado por el Gobierno Vasco para la ordenación del sistema universitario vasco, debe establecer, junto a otros aspectos, las líneas principales



de financiación y de inversión, garantizando a la UPV/EHU un modelo de financiación suficiente para el cumplimiento de sus fines y la mejora de su calidad.

La coincidencia temporal en la elaboración de ambas herramientas es una oportunidad para alinear los grandes retos de la universidad con los grandes retos de la sociedad vasca. Quiero expresarlo de ese modo ante nuestras instituciones y hacerlo, además, desde un principio de deber compartido y de corresponsabilidad.

Nuestro Plan Estratégico se articula sobre cinco ejes. Los dos primeros se ocupan de las dos actividades fundamentales de la universidad: formación e investigación; el tercero se centra en la relación con la sociedad, aspecto que, como universidad pública, tiene carácter estratégico; el cuarto está dirigido a las personas, es decir, a los distintos colectivos universitarios; y el quinto se dedica a la dirección de la universidad y a la administración de los recursos.

Con ello, pretendemos alcanzar la excelencia en formación e investigación; y contribuir al bienestar de la sociedad vasca a través de la transferencia y la divulgación de conocimiento. Ya hemos señalado las acciones que impulsaremos en investigación. Permítanme glosar brevemente las acciones que desarrollaremos en el resto de los ejes.

En docencia, buscamos ofrecer una formación excelente, basada en un modelo educativo propio (IKD), plurilingüe, y que potencia la formación dual, la formación on line y la formación en competencias transversales además de las propias de cada titulación. Una formación que apuesta por la internacionalización y que, sin olvidar nuestras raíces, nos debe hacer permeables a otras lenguas y culturas. También promovemos un modelo educativo que potencia la autonomía del alumnado y le

permite adoptar decisiones adecuadas en un contexto cambiante y cada vez más exigente.

La generación de conocimiento, de la que ya hemos hablado, nos ha situado en buenas posiciones en los rankings internacionales más importantes (Shanghái, CWUR, Times Higher Education). Ello ha sido posible porque, entre otros logros, en los últimos cuatro años hemos incrementado en un 7,5% la financiación obtenida en convocatorias competitivas de apoyo a la investigación, hemos alcanzado la cifra de 528 tesis anuales y hemos publicado más de 3.000 artículos en revistas de impacto internacional. Además, tenemos en vigor 10 proyectos de excelencia de la European Research Council, cinco de ellos iniciados en los últimos tres años. Del mismo modo que nos gustaría seguir aumentando nuestro protagonismo en investigación, hemos colaborado y seguiremos colaborando con otros agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación. La presencia en los rankings internacionales prestigia nuestra marca y nos exige completar el apoyo a la investigación con un resuelto apoyo a las personas investigadoras y a la consolidación de la expectativa de una carrera profesional ascendente.

El cuidado a nuestro personal se materializa también en otras acciones: búsqueda de una mayor estabilidad y cualificación para el Personal Docente e Investigador y para el Personal de Administración y Servicios; fomento de la movilidad en todos los sectores universitarios; promoción de las vocaciones científicas, en especial entre las mujeres de las nuevas generaciones; o impulso del emprendimiento.

Dentro de este apartado dedicado a las personas defendemos una universidad ética, comprometida y socialmente responsable, que sea sensible al principio de solidaridad y tenga presente a los colectivos más desfavorecidos.

El modelo de universidad que defendemos implica también un estilo de gobernanza basado en la transparencia y la eficiencia.

Y todo ello, por último, con un firme compromiso por la cultura y la lengua vascas, que nos exige atender los espacios, por fortuna cada vez más exiguos, de la actividad universitaria donde el euskera aún no se halla en condiciones de igualdad.

Queremos relacionar el Plan Estratégico de la UPV/EHU, cuyas líneas generales acabo de describir, con el Plan Universitario del Gobierno Vasco y hacerlo desde una visión de responsabilidad compartida. Porque a la universidad no le corresponde solo reclamar recursos, sino asumir también su propia responsabilidad a través de dos objetivos: uno, generar recursos propios; y dos, utilizar los que se nos asignan por ley de la forma más eficaz posible.

Desde que asumí la dirección de la universidad, este equipo ha reivindicado, y seguirá reivindicando, la necesidad de un marco estable y duradero de financiación, un marco que sitúe a la universidad en los niveles de recursos anteriores a la crisis. Pero nuestra posición no es solo de reclamación: se nos debe exi-

gir, y también nos exigimos, una postura activa de obtención de resultados y de recursos económicos.

Ya hemos mencionado que el año pasado la universidad obtuvo, al margen de lo recibido a través de los presupuestos de la CAPV, cerca de 25 millones de euros por actividades de investigación y transferencia de conocimiento. Por eso, cuando hablaba de potenciar la investigación pensaba también en esa vertiente. Se trata de un compromiso que, de cara al futuro, debe materializarse también en recursos obtenidos mediante la prestación de servicios a la administración pública, a las empresas y a las entidades sin ánimo de lucro.

Asumiendo ese compromiso, sí podemos pedir a las instituciones un apoyo explícito. La elaboración y aprobación del próximo Plan Universitario, en consonancia con los principios establecidos en nuestro Plan Estratégico, es una oportunidad para establecer ese marco, basado en dos principios: suficiencia financiera y estabilidad. Somos una universidad investigadora respetada a nivel internacional y un buen plan universitario podría aproximarnos más a las mejores universidades del mundo. La inversión en educación superior, en universidad pública, es la mejor





inversión que puede realizar un país. No tengo ninguna duda.

Hay una clara apuesta del Gobierno Vasco por la universidad pública. Ante esa certeza, tenemos la seguridad de que el Plan Universitario es una oportunidad para renovar ese compromiso y encontrar soluciones a medio plazo. El Gobierno Vasco y el conjunto de las instituciones de nuestro país, con las que colaboramos intensamente, siempre encontrarán nuestra mejor disposición para llegar a acuerdos que consoliden definitivamente ese doble principio: suficiencia y estabilidad.

He hablado de corresponsabilidad, y de aumento de nuestros recursos propios, a través de la investigación y de la transferencia. Pero quería insistir en la aplicación del concepto de corresponsabilidad desde otra perspectiva.

Es necesario introducir en el discurso público una diferenciación conceptual que, a menudo, se nos olvida: la que distingue entre elitismo y excelencia. El carácter público de la UPV/EHU se funda en el principio de que ninguna persona con capacidad intelectual suficiente vea limitada su aspiración de formarse por problemas de orden económico o social. Hemos emprendido varios programas

para garantizar ese principio (Fondo Social, Programa Arrakasta, Programa de ayuda a personas refugiadas, etc.). A ello se unen, lógicamente, los precios públicos de la matrícula universitaria o los programas de becas que establece el Gobierno Vasco.

Somos una universidad pública y es ahí, en el acceso a la educación superior, en la garantía de los derechos, donde debemos confirmar ese carácter. A veces se confunde la defensa de ese derecho con un relajamiento de los estándares de exigencia. Nos oponemos a esa confusión, no solo porque va en contra de la práctica académica diaria de la UPV/EHU, que también, sino porque desliza sobre la universidad pública una sombra de sospecha, que afecta injusta y negativamente a su reputación.

Reitero que es necesario deslindar de forma clara elitismo y excelencia. Una universidad pública no puede ser una universidad elitista, restrictiva, por tanto, en el sistema de acceso o sometida a parámetros de exigencia distintos a la capacidad intelectual. Pero una universidad pública puede y debe ser (y desde luego la nuestra lo es) una universidad que apuesta por la excelencia, por el espíritu de superación en lo profesional, en lo intelectual y en lo institu-



cional, por ofrecer y reclamar a cada persona el máximo nivel de esfuerzo y de entrega en la consecución de sus objetivos profesionales y en su servicio a los demás.

El carácter público de una organización como la nuestra nos impone un nivel de exigencia cualificado. Para alcanzar la excelencia es necesario exigirnos y exigir. En el servicio público esa exigencia se redobla. Por eso somos conscientes de que una universidad pública también debe estar sometida al escrutinio de las instituciones y de la sociedad. Lo cual nos exige internamente, como decía, un esfuerzo cualificado.

Así, reafirmo la total disposición de nuestro equipo para seguir colaborando con el Departamento de Educación en el camino hacia la excelencia, y para asumir mayores retos en lo que se refiere a resultados académicos, captación de recursos y rendición de cuentas en el marco del próximo Plan Universitario.

Hemos conseguido un alto grado de cumplimiento en los objetivos establecidos en el anterior Plan, y la evaluación de los contratos-programa realizada por la Agencia Unibasq ha sido también satisfactoria. Pero no debemos caer en la autocomplacencia. Sabemos que

hay áreas de trabajo en las que los resultados son mejorables.

Con nuestro Plan Estratégico y la próxima aprobación del Plan Universitario, tenemos una nueva expectativa. Desde aquí agradezco al Gobierno su voluntad de impulsar proyectos de interés para la universidad y para Euskal Herria. Y le pido que confíe en la universidad, en nuestra universidad, en la universidad de todas las personas de este país.

Esta universidad ha demostrado que pone sus recursos y su autonomía, principio esencial de la universidad, al servicio de los intereses generales de la sociedad vasca y que trata de responder a los problemas que afectan y que preocupan a sus ciudadanos y ciudadanas. Necesitamos la confianza y el apoyo del Gobierno Vasco para seguir manteniendo nuestra posición entre las mejores universidades del mundo y para seguir prestando un servicio de calidad a la sociedad. Y desde luego, en pos de ese objetivo, nuestro compromiso es incondicional.


Mila esker guztioi eta, ekitaldi akademikoetan esaten dudan moduan, mesez, ez ahaztu: **Eman Ta Zabal Zazue.**





Iñigo Urkullu,  
Lehendakari jaunaren hitzaldia

Discurso del Lehendakari,  
Iñigo Urkullu







Herri ordezkari guztiok,  
Ardanza lehendakaria,  
ararteko jauna,  
Euskal Herriko Unibertsitateko errektore  
anderea,  
Mondragon Unibertsitateko errektore  
jauna,  
Deustuko Unibertsitateko errektoreorde  
jauna,  
UPV/EHUko errektore oihak jaunak,  
irakasle eta ikasle ordezkari guztiok,  
sailburu andrea, jaun andreok, egunon.

Eskerrik asko Pedro Iriondo ikasturtea-  
ren laburpenagatik; Ana Zubiaga dok-  
torea etorkizuneko ikuspegi berri bat  
azaltzeagatik; eta Nekane Balluerka erre-  
ktorea hasiera ekitaldi honetan erakusten  
duzun adore eta ilusioagatik; ez dugu  
ahaztuko, «ematen eta zabaltzen» jarraitu  
behar dugu...

Gaur Europara begira jarrita hasiko naiz.  
Europako unibertsitatea lankidetzara  
eredu baterantz ari da aurrera egiten. Ez  
du helburu makala: uztarri berean lotu

behar baititu unibertsitatea eta gizar-  
tea. Denok dugu helburu bera: eraldatzen  
ari den mundu honetako erronka berriei  
erantzutea.

Euskadin, esku biekkin heldu diogu lanki-  
detzaren erronka horri. Guk «auzolana»  
deitzen diogu, badakigulako mundu glo-  
balean elkarrekin lan egin beharra da-  
goela. Horixe Unibertsitatearen jomuga,  
horrela jardungo baitu pertsonaren pres-  
takuntza osoaren alde, bikaintasunaren  
alde eta gure gizartearen zerbitzura.

La Educación es un reto de País y hemos asu-  
mido el compromiso de trabajar juntos, desde  
la equidad, por la excelencia. Hemos aprobado  
una Estrategia compartida que responde al  
reto de la formación y la investigación como  
pilares del proyecto universitario.

No son palabras, son hechos:

- Estrategia universidad-empresa;
- Modelo de formación dual superior;
- Clúster de las Facultades de Ciencia y Tecnología alineado con el RIS3 de espe-  
cialización inteligente;
- Alianzas con la Red vasca de Ciencia,  
Tecnología e Innovación.
- Centros de excelencia en investigación  
básica vinculados con la Universidad;
- Euskampus o Campus de excelencia  
eurorregional;
- Centro de fabricación avanzada;
- Financiación extraordinaria a los polos  
de conocimiento;
- Nuevas iniciativas para fomentar la em-  
pleabilidad del alumnado.

Badakigu ez dela nahikoa, baina bada-  
kigu, aldi berean, horixe dela bidea.



Ikasturte hau berezia eta garrantzitsua da, Euskal Unibertsitate Sistemaren 2019-2022 Plan berria aurkeztu eta definituko dugulako.

Etorkizuneko ikuspegi honetan lehentasunezko lau erronka nabarmendu nahi ditugu:

- Unibertsitate publikoaren eta gizartearen arteko lankidetzaz;
- Ikerketa, bikaintasuna eta lehiakortasuna sustatzea;
- Heziketaren berrikuntza; eta
- Nazioartekotzea.

El Plan del Sistema Universitario Vasco 2019-2022 es una nueva oportunidad para colaborar, primar la excelencia y reforzar el compromiso con la Universidad:

- Colaborar en el Clúster 4gune, los nuevos criterios para las menciones internacionales o las aulas empresa-universidad.

- Impulsar el Campus de excelencia; los Centros de investigación básica e Ikerbasque o los grupos de investigación de excelencia.

- Innovar en el desarrollo del modelo IKD; las nuevas herramientas digitales; o la formación del profesorado.

- Avanzar en la internacionalización con la promoción de la movilidad; los programas de colaboración; o el incremento de la oferta internacional.

Retos, acciones y programas que nos permiten dar un paso más hacia la excelencia de la Universidad, en este caso de la Universidad del País Vasco, a la cual felicito por su esfuerzo en la labor investigadora, reconocida en el ranking de Shangai, entre otros.

Amaitzeko, mezu pertsonal bat eman nahi diot Unibertsitateko irakasle, profesional eta ikasle bakoitzari. Behin eta berri entzun diguzue formazioa dela etor-



kizunaren oinarria. Baita prestakuntza erronka pertsonala dela eta etorkizun hobe izateko inbertsioa dela ere.

Bada, gaur, beste ideia bat gehituko dut Euskal Herriko Unibertsitate Publikoan gaudela eta: prestakuntza gizarte guztia- ren inbertsioa da. Aukera bat da, eta kon- promisoa ere bai. Baliatu inbertsio hau; ona baita zuentzat eta, ona baita orobat, euskal gizarte osoarentzat.

Xede honekin hasitzat ematen dut 2018 / 2019 ikasturtea Euskal Herriko Unibertsitatean.

Declaro inaugurado el curso académico 2018 / 2019 en la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

Eskerrik asko; egun eta ikasturte ona izan!





eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea